



HERRIA

Azkenean kasi PNVeko klasiko bat Baroja ere. Edo ez urruti. Horrelako Baroja batekin geratu ginen iaz, hura hil eta 25 urtegarrengo omenaldien buruan. Hori bai, azkenean "errekuperatu" dugu ardi galdua.

Liberala omen zen. Oso liberal zentzuduna gainera. Irekia, tolerantia. Oso arrazoizko gizona. Trufari samarra zen, baina, tira, ez da horrenbestetarako ere. Biolentziarik gabe. Indibidualista samarra ere bazen, bai. Baina oso euskalduna da hori, ezta? Oso euskalduna. Oso gizon jatorra. Bake gizona. Euskal Herriaren oso maitalea. Euskal parajeak, itsas-mendiak, euskal...

Bere bitxitasuntxoak zituen, jakina. Zein literatok ez ditu?. Baina, bestela, kasi-kasi goizean meza nagusia eta angula bazkaria gero, eta arratsaldea patxada onean, Euskal Herri zoragarri hau maitatuz, eta euskal jendeak, arrantzaleak eta baserritarrak, apaiz botikarioak eta kontrabandistak, euskal kanta gregoriano antzekoak eta euskal euria eta euskal ilunabarrak, eta ipuinak, maitatuz eta maitatuz beti. Gero nobelak egin. Inork ez ditu hemengo tipoak Barojak adina maitatu. Inork ez ditu hobeto hemengo parajeak pintatu. Euskal izpiritu jatorra edo dena delako hori, hau da, "euskal arima", ez du espresatu beste inork Barojak bezain bizi eta garbi.

Baroja kontenplaitbo eta euskal gauzen maitale bat, oso liberala eta bukolikoa, hain konfliktibo bihurtu zuten elementu guzi haietatik garbigarbitua kuxidade haundiz. Caro Barojaren bitartez irakurritako Don Pio bat hain zuzen. Edo, seguruago, Boterearen momentuko interes politiko ideologikoen begiz irakurritakoa: bere garaian galdu egin zuen behinolako "abertzaletasunak" orain omenaldiz eta nostalgiaz (eta lakatz eta adar mozketaz) errekuperatu duen arditxo galdu gaixoa. Gaixoa, bai, hola errekuperatutako Don Pio gaixoa, batere maite ez zituen horietako sakristia batetan harrapatuta orain, biguingarri zitzaizkion patriota sentimental-folklorikoen aldarean. Zeinek omenduko du orain Don Pio "anarkista", antiklerikala, Nietzscheren zale porrokatua, antikristaua eta antijudua, antidemo-

krata eta antiparlamentarioa, antiabertzalea eta anti "euskaldun-fededun" a, biolentoa, ez batere liberala?.

Neuri, behintzat, eta holako anakronismo txoroetan sartzekotan, HBe-ko tipo bat iruditu bait zait beti Don Pio, beste ezer baino gehiago. Eta ez derrigor zentzu positiboan, baina horren anbiguetate guzi-guziek.

Baroja ez zen tipo bukoliko bat. Bere mila kontraesanak kenduz gero, Barojarik ez da geratzen. Sua eta borroka eta errebeldia zen, ez patxada, ordenua. Eta, pintatu ere, hemengo iturri kantariak eta zelai berdeak ez, baino ekintza ekintzagatik eta biolentzia biolentziagatik pintatu ditu, ezer pintatzekotan, inork Euskal Herriari ez bezala. Arrazoizkotasun kalkulatuaz eta ordenu demokratikoaz eta moderazio liberalaz burlatu egin da, beste ezer ez. Artaldekeriatzat zeuzkan. Borroka indibidual kupida gabekoan sinestu du. Anarko bat izan da. Burges txukun eta negozioren edo negoziaketaren eramaile zintzoak ridikulizatu ditu. Aktibistak eta errebelde irrazionalak, instintiboak, goratu. "Yo odio al militar de oficio y amo la guerra", bere pertsonaia bati esanarazten dion moduan. Eta: "destruir es crear". Borrokaren eta biolentziaren gorazarrea. Hori da batez ere Baroja, bere haunditasunean eta bere anbiguetatean. Eta bere euskalduntasunean.

Gaur bezalaxe zeuden Barojaren garaian ere "arrazoizkoen" eta "irrazionalen" bandoak. Baroja, non zebilen esatea ez da erraza, baina garbi dago non ez zebilen. Alferrik nahiko dugu orain bandoz aldatu.

Baina Eliza Katolikoak badu estrategia abil bat, nazkaren nazkaz edo amorraren amorruez behin ihes egindako denak, apostatak heretikoak, atzera poliki-poliki errekuperatzeko, ehun edo berrehun urte geroago. Lutero, Marx bera. Guk Baroja lehenago harrapatu dugu. Eta euskal pentsamendu modernoan "irrazionalismo kritikoa" izan duen exponente gorenetakoa hau, arrazoizkotasun demokratikoaren kapilar sarrarazi nahi dugu orain, deboto eta mantso-mantso. Berriz ere, arrazoizkoen Euskal Herriari, artaldetik kanpora existentziarik ez dago. ●

BAROJA GORA, BAROJA BEHERA

Joxe AZURMENDI